



“Ahal banu, buruarekin marraztuko nuke”

Marko Armspach | Beleta bat buruan

Bileretan marrazten baino denbora gehiago pasatzen duen marrazkilaria. Bizitza bat marrazkitan, isilik dagoenean. Marrazki bizidun bat, hizketan hasten denean.

SUSTRAI COLINA

Argazkia: Dani Blanco

Leienda herrikoia. Marrazkilaria=ikasle txarra.

Marrazkiak ematen dizu indar bat behar dituzun ikasgaietan zentratzeko eta besteez paso egiteko. Horrek ez du esan nahi ikasle txarrak garenik. Baina zertarako behar du matematika marrazkilaria batek?

Napartheid-eko marrazkilaria izateko!

Napartheid bonba bat zen, beti irakiten zegoen marmita bat. Ongi bizitzea eta gauzak ongi egitea ziren gure helburu bakarrak. Orduko gehienak oraindik hemen gaude. Ez da kasualitatea.

Euskal Herrian marrazkilaria ofizioa zuek prestigioa duzuela sinestea ere...

Gurea ez da serbilleta mutur batean mamarraxoak egitea. Nire lanen zerrenda egiten badituz, eta nire begi-zuloak ikusten badituzu, ofizio serioa dudala ohartuko zara.

Futbolariarena ere ofizio serioa omen da eta...

Aizu, gu ere lesionatzen gara! Sei hilabete egon naiz ezin marraztuz, minaren minez, urte askotan gehiegi marraztu dudalako. Orain ulertu dut gehiago pentsatu behar dudala eta gutxiago marraztu.

Kar, kar, kar, kar!

Ez dakit zergatik, eta ez dakit nolaz, baina marraztea obsesioa da niretzat. Marrazkilaria konpulsioa naiz, gaixoa ia. Ez naiz gelditzen. Psikoanalista bat behar nuke marrazteak zer hutsune betetzen didan jakiteko!

Nik zure marrazkiak burutik paperera zenbat aldatzen diren jakin nahi nuke.

Sobera. Eskua tresna da, eta espero duzu buruan duzuna ahal bezain ongi erreproduzitzeko duela. Baina, ahal banu, buruarekin marraztuko nuke.

Marrazten hasi aurretik argitaratzeko duzula segurtatzeko zenukeela, alegia.

Argitaratzea pastel gaineko ginda da. Gauzak niretzat egiten ditut, egin dudana harro egiteko. Argitaratzeko lan egitea gurdia idien aurretik jartzea litzateke!

Zergatik autozentsuratzen zara, orduan?

Ezjakintasunez. Noraino helduko nintzateke autozentsuratuko ez banintz? Noren errua litzateke? Nirea? Editorearena? Publikoarena?

Mahomarena!

Mendebaldeko jauntxoek, artistek adierazpen askatasun osoa behar dutela diote, baina aurrenekoak dira Aita Santuari buruzko marrazki bizidunak zentsuratzen!

Eskerak batzuek amets amerikarra nola, zuk amets euskalduna bete duzun!

Nik hemen bizitzea erabaki nuen, hemen lan egitea, eta amets bat da herri honetan egiten diren proiektu interesgarrietan lagunekin aritzea. Gainera, amets amerikarra baino hurbilago dago gurea! ■